

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Davalor Salud enpresak milioi bat euro jasoko du ikusmena hobetzeko teknologien proiekturako

*Nafarroako Gobernuak hitzarmen bana sinatu du inbertsioa foru-interesekotzat jotzeko eta SODENAk enpresari diru-laguntza emateko.*

Miércoles, 09 de septiembre de 2015

Inbertsioa foru-interesekotzat jotzea eta Davalor Salud SL enpresak sustaturiko enpresa-proiekturako milioi bat euroko laguntza ematea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Enpresa sustatzaileak ikusmen-arazoak konpontzeko teknologiak garatu eta merkaturatzen ditu.

Davalor Salud 2011n eraturiko enpresa nafarra da. Taxoaren du egoitza, eta tituludun 48 langilek osatzen dute plantilla, eta tituludun beste 60 pertsonari ematen die lana zeharka. Alor hauetakoak dira: ingeniariaritz, informatika, optometria, etab.

Inbertsio handia egin dute I+G+B ardatz duen proiektuan: ikusmen-arazoak dituztenentzako (konbergentziaren gutxiegitasuna, tropia, hipermetropia, presbisia, etab.) miaketa, diagnostikoa eta terapia egiteko hardware eta softwarea garatu eta merkaturatzean datza. Biztanleen erdiak ikusmen-disfuntzioren bat du, eta arazo larriak dira horien % 10en kasuan.

2015 amaitu aurretik, Davalor Salud enpresak bere lehen ekipo eta zerbitzuak merkaturatuko dituela aurreikusi da.

Manu Ayerdi Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Gobernuaren saioaren ondorengo prentsaurrekoan azaldu duenez, Nafarroako enpresaren proiektuak mundu mailako aurrerapen teknologikoa du oinarri. Ahal handia du, balio erantsi handiko enplegua sortzeko aukera ugari eskaintzen dituelako eta osasunaren alorreko proiektua delako, hau da, Nafarroako Gobernuaren garapen-alor estrategikoetako batekoa.

Hori dela eta, proiektua foru-intereseko inbertsioztat jotzea eta SODENari (Nafarroako Garapen Sozietateari) 15 eguneko epean milioi bateko laguntza (partaidetza-mailegu edo bestelako formula egoki baten bidez) ematea erabaki du Foru-gobernuak. "Hala, --erantsi du Ayerdik-- enpresa-proiektu horrekiko duen konpromisoa eta ilusioa erakutsi nahi ditu Gobernuak".